

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Urriak 25, 123. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



NEKANE IGLESIAS
Udal-politikan
murgildutako
emakumea

Osasunbide berriak

Gero eta aukera zabalagoa



**LORAMENDI
BIROLAK**

Maiatzaren 1a plaza. ARRASATE
Tfnoa: 79 97 24

**Gu prest gaude negurako,
eta zu?
Ez bazaude gertu,
pasa hemendik!**



Juanlu

M

iraria baino zenbait ordu berandua-
go, egunsentian, dotoreriak orain-
dik ez du galdu bere indarra.
Sonbreirua, eskularruak (larrua
esku artean?) eta harrokeri keinu

iradokor bat.

Miraria baino zenbait ordu berandua-
go, egunsentian, aldatz behera, auto bat espaloi
gainean eta Pepsi Cola. Oroitzapenerako
zuri-beltzeko erretratu bat.

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
Arrasate 79 98 94

Gabriel Elorriaga Dka.

Loditasuna • Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua

Santa Kruz, 24-1ª (1ª C Eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

ARRASATE PRESS



77 05 65



DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZ AGENTZIA

ITURRIOTZ, 23 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 13 02 Faxa: 77 14 27

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Iñaki Mendiguren

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Agurtzane Loidi

Publizitatea eta harpidetzak:

Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Karnele Zuazubiskar, Juan Martin
Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso,
Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza,
Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés,
Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu,
Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitakoan, ASA
taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea,
Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien
erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan
egiten da.

Etorkizun hurbileko arkitektura

Arkitekturari buruz mintzatzen denean, Arrasaten azken urteotan eman den prozesu sakona datorkit burura; izan ere, gure artean gertaturiko aldaketak arkitekturaren beraren zientzi oinarriak dardaran ipini bait ditu zenbait kasutan. Hain konplexua den gai honek bizitza-arlo desberdinetan eragin nabaria duelarik, gero eta argiago azaltzen zaigu bihar-etzikoko planteamendu soziologikoei itsatsita.

Etxagintza eraikuntzaren alderdi garrantzitsu bat izanik, ekonomiaren bultzagiletzat har dezakegu. Etxagintzaren osasuna ona baldin bada, oro har, ekonomiaren bideak oztopo desorekatzaileetatik garbi aurkituko dira, errealitate osoa bait da etxagintzaren itzala, ona zein txarra, sektore guztietara iristen dela. Gaurregun, mundu osoko ekonomia alborengoak jota ikusten dugunean, alaitasun gutxi espero daiteke zero azpitik dagerkitu etxagintzaren arlotik.

Teoria eta praktika gutxitan ezkondu ahal izan dira. Etxagintzari dagokionez, gure hirietako diseinu berriaren kokagune kronologikoa hirurogeigarren dekadako erdikaldean jar dezakegu; baita Arrasateko kasuan ere. Ekonomiaren hazkunde positi-

boak eraginda, buru gutxiko eta irabazi azkarreko politikak agindu zuen etxagintzan. Etxeen kalitatea nola-halako gertatu zelarik, arkitektoek presenteari izan zuten giza jario kontsumitzaileari **noiz** erantzutea, **nola** baino. Horrela sortu ziren gure egunotan giza nahikeriaren ispilu diren auzo marjinatu horietako asko. **Noiz** hari «lehenbailehen» formulaz ihardetsi zitzaion; **nola** galderari, ordea, ez zizkioten gutxieneko kalitate-baldintzek jarraitu.

Arkitektoek, udal-arautegiek markatu beharko lituzketen bideei jarraiki, etorkizun hurbilak erakutsiko digun panoramaz harantzagoko jauzia egin beharko dute. Hitza guztiz desbalorizatzen ari garelako ez balitz, eraikuntzak ildo ekologikoak bilatu beharko lituzkeela esango nuke. Ekoarkitekturak etxeen kanpokaldeko itxura ezezik, bertako ingurugiroa ere izan beharko luke kontutan, teknologia berriak aplikatuz, osotasunari koherentzia egokia emateko. Gure hirietako degradapenak irudimenaren esfortzu berezia eskatzen du, lege eta giza jarreraren aldeetatik, guztion onerako eratu beharreko baldintzak hezurmani daitezten.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

LILURA

zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu

Zerkaosteta, 5 etxabea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE

comercial san juan

Garibal, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta oparidenda

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

ZANGITU
C. B.

PINTURAK ETA
PAPER PINTATUAK

Olarte, 29
Arrasate
Tfnoa: 78 91 82

D. Irala
Bergara
Tfnoa: 78 19 54

PAZI-OLA S.A.


Zaldispé kalea, 2
ARRASATE
Tfnoa 79 29 91

Adi eta erne SARIKETA PAREGABEA!

Datorren astetik aurrera, 12 astetan zehar, sari bikainak eskuratzeko aukera izango duzue Arrasate Press eta herriko sei dendaren eskutik.

1) Astero, sari bat izango da Arrasate Press-eko **Fotstrukoaa** asmatu, hona bidali eta zozketan zorte ona izaten duenarentzat. (**Fotstrukoaa** izan liteke, zatikatuta agertuko den argazki bat osatuz zein pertsona edo leku den asmatzea, edo argazkian egingo dugun trukoaz ohartzea).

2) Hamabi astetan zehar 6 denda horietan erosketak egiten dituztenei txartel bat emango zaie, ondorengo zozketan parte hartzeko:



CLIO 1.1. CL (F.F.)

KANARIAR IRLETARA
bi lagunentzako bidaia



• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

LORATEGI

taberna

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67

Nola konponduko zenuke drogaren arazoa?



Rafa Mungia
(Ikaslea)

Trafikatzen dutenekin hasiko nintzateke; horiek gartzelan sartuko nituzke eta drogazaleei laguntza emango nieke.




Maria Pascual
(Jubilatua)

Drogazaleei ahal den laguntza gehien eman beharko litzaieke. Maioristak edo goian daudenak kendu behar dira.




Amalur Lopez
(Ikaslea)

Trafikariak harrapatuko nituzke, prebentzio-lana egingo nuke jendeak drogari ez kontsumitzeko eta drogazaleentzat etxeak ipini, zaintzeko eta osatzeko.



Angel Soto
(Langilea)

Drogazaleak ez nituzke zigortuko; horiek gehiago zaindu, etxe berezi batzuk sortu edo daudenetara bidaliko nituzke laguntza emanetz.



Alfonso Obrego
(Jubilatua)

Herrietan droga ez sartzeko bijilantzia gehiago ipiniko nuke eta drogazaleak ez nituzke zigortuko, nahikoa zigor badaukate drogazale izanda, laguntza emango nieke.



Marian Izquierdo
(Langilea)

Trafikariak gartzelan sartuko nituzke, baina ez bizpahiru urtetarako bakarrik, denbora luzerako baizik. Drogazaleei laguntza eman eta ez baztertu, gehienak egiten duten moduan.



ACEIG-FECEIko kidea

**Klaseak
Itzulpenak
Udako
ikastaroak
Bidaiak
Elkartrukeak
Udalekuak
Prestakuntza**

**“Hizkuntza bat gehiago,
muga bat gutxiago”**

Araba Etorb. 4 ARRASATE Tfnoa: 79 01 32

Psikologo klinikoa

LOGOPEDA


(Comillas-eko Unibertsitate Pontifizioan)

**Hizketa eta mintzairaren
diagnostiko eta
tratamendua**

M^a Jesus Urzelai Ondona

15. Poligonoa, 3^a Ezk. (Irakasle Eskolaren aurretik)

ESKORIATZA Tfnoa: 79 06 63



Fotokopiatuak
Enkoadernazioak
Planoen erreproduzioak
Gifera

Ferrerías, 23

ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAIMTZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------



25 OSTIRALA

• • •

- Zinea: Alai: "Canguro último modelo" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

26 LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai: "A propósito de Henry" (5-7.30-10)
- Umeentzako bideo-emanaldia: "Arka galduaren bila". Monterronen, arratsaldeko 4.30etan.
- Kontzertua: Rip eta Heriotza. Gaztetxean, gaueko 10etan.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

Kirol Agenda

27 IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai: "A propósito de Henry" (5-7-9.30)
- Txotxongilo-emanaldia: "Con Quijote hemos topado", Nessun Dorma talde kataluniarrak eskainita. Amaia antzokian, arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmaziak: Aurora Ruiz, Maala.

28 ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai: "A propósito de Henry" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

29 ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai: "A propósito de Henry" (7-9.30)

- "Berdintasunerako plangintza", unitate ibiltaria. Biteri pasealekuan, goizeko 10.30tik 1 atara eta arratsaldeko 4.30etatik 7etara, Emakundek antolatuta.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

30 ASTEAZKENA

• • •

- Bilera: Euskaldunon Egunkariaren urteurreneko ekintzak antolatzeko. Arratsaldeko 7etan, Monterronen.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

31 OSTEAGUNA

• • •

- Zinea: Alai: "Este chico es un diablo".
- Zinea: Amaia: "Society" (8.30)
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

Futbitoa

• • •

- Zaldibarko txapelketaren barne, partidu ugari larunbat goizetik igande goizera bitartean.

Saskibaloia

• • •

- Centraljet Euskal Air eta SDI Loyola taldeen arteko partidua. Larunbatean, arratsaldeko 6etan Musakolako kiroldegian.

Futbola

• • •

- Mondra eta Zumaiako emakumezko taldeen arteko partidua, Atxabalpen igandean eguerdiko 12.30etan.

Autobusak

• AEK eguna

Datorren igandean, 27an, Agurainen izango den AEK egunerako autobusak antolatuta dira. Berorietan joan nahi dutenek Hire, Biona, AED, eta AEKn eman beharko dute izena eta bidaiaren prezioa 700 pezetakoa da. Autobusa Arbolapetatik 9.30etan irtego da.

Aldizkariak


• Jazten

Jazten aldizkariaren laugarren alea kaleratu da dagoeneko. Oraingoan Marije Lezeta, Xabier Letona, Jon Sarasua eta Elena San Martinek idatzi dute, eta gaia "Gazteak eta euskara" da. Hirurogeitamabi orrialde dituen aldizkari honen 2.500 ale argitaratu dira. Laugarren ale hau erostea nahi duzuen guztiok edozein liburutandatan edo AEDn eskura dezakezue.



• Ze Barri?

Ze Barri?, Eskoriatzako Axtroki euskara bultzatzen duen taldeak sortutako aldizkaria da. Bi hilabetetik behin argitaratuko da eta lehen zenbakia kaleratu berria da. Lehen tiradan 1000 ale banatu dira eta hurrengoan 1100 banatuko dira. Eskoriatzarren batek parte hartu nahi badu Axtroki taldekoren bategana joatea besterik ez dauka.



EGUNKARIAREN KANPAINA

Asteazkenean bilera Monterronen

Euskaldunon Egunkariaren lehenengo urteurrena beteko da eta ondorioz, Euskal Herriko herri guztietan kanpaina bat antolatzea pentsatu da. Hau dela eta urriaren hogeitamarrean, asteazkena, arratsaldeko 7etan bilera bat izango da Monterronen. Bilera honen helburua herrian egingo den kanpaina osoa antolatzea izango da.

Gogora daitekeenez, egunkariaren urteurrena abenduaren seian izango da. Egun horretarako ale berezi bat aterako da, kalean dohainik banatuko dena. Honetaz gain, Egunkariako abenduaren hamabostean beste ale berezi bat aterako dute, "Arrasate eta Euskara" gaia aztertuko duena, hain zuzen ere. Ale hau, beste alearen moduan, kalean dohainik banatuko da. Egun hartarako, Donostiako belodromoan jaialdi bat ere badago antolatuta. Asteazkenean izango den bilerara ahal den jende gehien gerturatzea eskatzen dute antolatzaileek.

Hitzaldiak

• Berdintasunerako plangintza

Emakumearen Euskal Erakundeak, Emakundek, kanpaina ibiltari bat antolatu du berdintasunerako plangintza ezagutarazteko. Kanpaina honetan bulego mugikor bat egongo da, behar den informazio guztia eskainiz. Honetaz gain, hitzaldiak ere izango dira. Arrasatera Urriaren 29an, asteartea, helduko da eta bulego mugikorra Biteri Etorbideko 5ean kokatuko da, goizez 10.30etatik 1.30etara eta arratsaldez 4etatik 8eta-

ra; hitzaldiak Udaletxeko pleno aretoan eskainiko dira arratsaldeko 3.30etan eta 7etan.

Antzerkia

• Txotxongiloak

Datorren igandean 27an arratsaldeko 7.30etan Nessun Dorma taldeak. Amaia antzokian txotxongilo-emanaldia eskainiko du. Ekitaldia Udalak hiltzen antolatzen dituen kultur ekintzen barnean sartzen da eta ekitaldiaren izenburua "Con Quijote hemos topado" da. Txotxongilo-ikuskitzuna gazte-

laniaz izango da, oso gutxi hitzegiten dute, ikustekoa da batez ere, eta umorezkoa. Sarrera 500 PTA izango da, baina gazte txartelarekin eta 14 urtetik beherakoentzat 300 PTA.

Musika

• Kontzertua Gaztetxean

RIP eta Heriotza taldeek kontzertua eskainiko dute larunbatean, hilak 26, gaueko hamarretatik aurrera. Jakina denez, RIP taldekoak musikatik aparte geratu ziren. Arrasate Press-eko jaialdia zela eta berriekin zioten musika-bideari. Geroztik, han-hemenka kontzertu ugari eskaini dituzte eta larunbatean berriro Arrasaten izango dira. Kontzertu honetan, beren betiko kantak eskainiko dituzte. Larunbatean kontzertua ikusteko Gaztetxera joan nahi dutenek, 450 pezeta ordaindu beharko dituzte.



Ikastaroak

• Bio-espiniologia

Datorren azaroaren 2an eta 3an Arrasateko Yoga Elkartearen Bio-espiniologiaren tailer praktikoa burutuko da. Gai honi buruz informazio gehiago nahi duenak 79 35 76 edo 79 86 55 telefono zenbakietara deitu edo bestela elkartera bertara joan daiteke, Jose Luis Iñarra pasealekuko 28. zenbakira.

“Aitak eragin du nigan, dudarik gabe, baina ez politikoki. EAn nire atzetik afiliatu zela uste dut”

“Eusko Legebiltzarrean talde bat ginen, gobernutaldea. Madrilen bi gara, oposizioan gaude eta 175en aurrean ez daukagu zereginik. Horregatik, inpotentzi sentimendua sentitzen duzu”.

“Jendeak ez dakit noraino sinestuko duen, baina gure lana amaigabea da. Ez da lantegian bezala, zortzietatik zortzietara, eta kito!”

(Esther Larrañaga. EGUNKARIA 1991-X-22)

“Fidelek ongi daki, gaur egun Kuba pairatzen ari den ekonomi egoera latzaren erantzukizuna berari dagokiola, hein handi batean”.

(Josemari V. de Mendizabal. EGUNKARIA)

“Baina panorama ez sinplifikatzea komeni da. Lehendakari bat (Ardantza, zehazkiago) ordena-programa eta Ertzantza hipergaratuaz, funtzio errepresiboak eraginkortasunez betetzen dituena; Bruselas, Gran Viako BBV eta Euskal Banku Publikotik diseinaturiko politika ekonomiko eta soziala; euskara bigarren hizkuntzatzat (orain bezala) eta lehenengotik oso urrun; euskal presoak espetxeetan... Guk ez dugu honelako independentziaren alde borroka egiten”.

(Juan Ramon GARAI eta beste lauk. EGIN 1991-X-11)

Zergatik eta nola sortu zen “Senideak” elkarteak?

Zergatik? Pertsonaren funtsezko eskubideen ukapena gerta ez dadin eta helburu politikoa daukaten bestelako neurri-motekin zigortuak

izan ez daitezen preso senideak, beste edozein baino gehiago. Alde batetik, argi dago preso eskubideak ez direla betetzen, legeak diotenaren arabera, ezarritako zigorra bere herrialdeko gartzelaren batean betetzeko eskubidea duelako preso bakoitzak.

Presoentzat funtsezkoa den eskubide hori ez betetzean senideok zigortzen gaituzte, Estatuko bazter guztietara mugitzera behartuta bait daude. Egoeraren ondorio nabariak, alde batetik ekonomikoak dira, urrutirago joan beharra izanez gero bidaia garestiagoa delako. Bestetik errepidearen arriskua ezin da ukatu. Orain arte, bi izan dira presoren bat bisitatza joan eta istripuz hil direnak; zaurituak, berriz, bost.

Nola? Urriaren 6an Donostian Batzar Orokorra egin ondoren sortu zen *Senideak*, euskal preso politiko senideen elkarteak.

Pertsona bezala, giza eskubideak errespetatuak izan daitezen lortzea da gure helburua, bai geure eskubideak, baita gure senide diren euskal preso politikoak ere.

Lehen Arrasaten preso, errefuxiatu eta deportatuen familiarrak bezala nolabait eratuak geunden, orain Arrasateko *Senideak* gauzatzen dugunok.

Arrasateko “Senideak”




FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



PEÑACOBIA
Auto-Eskola

Zarugalde, 46
ARRASATE
Tfnoa: 79 29 93

Memesa
79 42 22

Aretxabaleta

• Haurren Eguna

Datorren Igandean, hilak 27, Haurren Eguna izango denez hainbat ekintza ezberdin dago antolatuta. Goizeko hamarretan hasita, *Incansables* txarangarekin diana, eta hamar t'erdietan haur dantzari ongiatorria. Hamaiketari "hamaiketakoa", noski. Hamaika t'erdietan haurrek dantza ezberdinak dantzatuko dituzte. Ordubatean berriro ere *Incansables* txarangarekin kalejira. Ordu bi t'erdietan bazkaria izango da, eta bostetan dantzarien alardea. Seietan bolo-bolo. Sei t'erdietan herri ezberdinetako taldeei agurra egingo zaie eta sei t'erdietatik aurrera *Incansables* txarangarekin amaiera emango zaio egunari.



Antzuola

• Gipuzkoako Bertsolari-Txapelketa

Ez da lehen aldia Gipuzkoako Bertsolari-Txapelketako kanporaketaren bat Antzuolan burutzen dela. Aurreko edizioan ere, orain lau urte, bertsolari eta bertsozale ugari bildu zen Guraso-Elkartearen aretoan. Aurtengoan ere, Antzuolari egokitu zaio Gipuzkoako Bertsolari-Txapelketari hasiera ematea, lehen kanporaketa ostiralean, hilak 25ean, izango delarik gaueko hamarretatik aurrera Guraso-Elkarteko aretoan. Elortza, Olalde, NARBART, IBERGUN, OLASO, GERRIKO, JOSE ANTONIO SASIAIN, FELIX AIZPURUA, BEGIRISTAIN, KOLDO ZELAIA eta MARIA ASUN OTEIZA bertsolarien saioa entzuteko aukera izango dute Antzuolara hurbiltzen diren guztiak. Kontuan hartuta orain artean Guraso-Elkarteko aretoa horrelakoetan txiki gelditu dela, bertsozaleei denboraz ibiltzea gomendatzen zaie, ez da lehen aldia izango jendea sartu ezinik gelditzen dena eta.



Bergara

• Bizi Alternatiboa

Aurten ere Drogomenpekotasunen Prebentziorako Batzordeak *Bizi alternatiboa* deritzon ekintza antolatu du. Batzorde honen helburua drogen kontsumora bultzatzen duten bizi-ohituren orde bestekintza ezberdin batzuk bultzatu, eta horrela prebentzioa sendotzea da. Antolatu diren ekintzen artean, ostiralerako gimnasia erritmikoko erakustaldia eta pelikula aire zabalean aipa daitezke. Larunbatean, berri, "Altxorraren bila" jolas da aipagarriena. Igandean dago antolatuta ekintzarik gehien: goizean, bizikleta martxa, karate-saioa, xake-partidak; arratsaldean, eskulanak eta kalejira, besteak beste.



ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50

Carrión
música, s.a.

- PIANOAK: Yamaha, Kawai, Rameau, Samick, Astor. (Prezio bereziak)
- MUSIKA-TRESNA ELEKTRONIKOAK: Yamaha, Roland, Korg, Casio, etab.
- EKIPRO PROFESIONALAK

M. Iradier, 20 GASTEIZ Tfnoa: (945) 23 07 49

zeppelin



Loramendi, 3 etxabea
ARRASATE Tfnoa: 79 74 09

□ **Lehiaketen epea bukatzeaz**
"Arrasate 91" lehiaketetan eta "Jokin Zaitegi V. itzulpen laburren sariketa" n parte hartu nahi dutenentzat epea bukatzen ari da. Sariak 50.000 PTA ingurukoak dira irabazleentzat Arrasate 91 lehiaketetan; itzulpen-sariketan, berriz, 250.000 PTA onenarentzat. Lanen bat aurkezteko asmoa dutenek azaroaren 4a aurretik AEDra eraman edo bidali beharko dute.

□ **Bide berria Mojategi baserrira**
Gobernu-Batzordean, Udalak Mojategi baserrira bide berria egiteko akordioa hartzeaz gain, lana burutzeko "Construcciones Irurok" enpresa aukeratu zen. Bide berria egiten, ia lau milioi t'erdiko dirutza erabiliko da.

□ **Lantegi-Eskola kolokan**
Lantegi-Eskolaren etorkizuna ez da argi ikusten, MCM enpresak egin zion lokal-lagapena gabonetan bukatzen delako eta ez dakitelako besterik izango duten.. Lantegi-Eskolaren helburua 18 eta 25 urte bitarteko gazte langabetuak eraikuntza, berregokitze eta ingurugiroari buruzko lanbideetan kualifikatzea da. Orain artean, hiru urtez, 90 ikasle aritu dira Nafarroa Etorbidetako lokalean. Dena dela, hurrengo programan sartzeko Arrasaten 487 eskari egin dira, Deba Garaian berriz 768. Gazteek egitasmo honekiko erakusten duten interesa kontuan hartuta, ez litzateke txarra izango aurrera begira Lantegi-Eskolari egoitza finko eta egokia aurkitzea.

ONGI ETORRIA JAI OBERRIEI

Navarro Hernandez, *Naiara*. Urriaren 13an.
Irasuegi Aspe, *Danel*. 16an.
Aranbarri Velasco, *Xabier*. 17an.

ZORIONAK EZKONBERRIEI

Felix Langarika & M^a Carmen Garcia.
Urriaren 19an. Zibilez.

Txandaka

EKINTZA=BIZITZA

Oraindik bizi-bizidut gogoan Londresen Irailaren 11tik 15era egindako egonaldia; *GIB-HIES*arekin bizi direnen Nazioarteko V. Batzarra izan zen. Esan al daiteke ezer berririk HIES/SID Ari buruz? Eragin al daiteke entzun nahi ez dutenengan?



Jon Salaberri (*)

Ez dut datu estatistikorik aipatuko, ezta eztabaida antzuetan sartuko ere. *Gizakiei* buruz hitz egin nahi dut. (Inor ez ote da ohartu *gizakiak* daudela HIESaren atzean?)

Arazo fisiko (mediko) larria dugun pertsonak gara eta arlo horretan mugitu beharko genuke. Zoritzarrez, ez da horrela gertatzen; gizarteak, manipulazio, sentsazionalismo eta zentzugabeko izu-ikaraz eta, azken aldi honetan, axolagabezia eta mesprezuz, badijadi geure sufrimendua areagotzeko zigorra ezarri nahi digula. Ez al da nahikoa gaixo egotea? Atsekabe txikia al da jendea hiltzen ikusi eta sentitzea, norbera gainbehera doala ohartzea, lagunak, adiskideak edota seme-alabak bidean uztea, ezer gutxi egin dezakezula ohartzea? Guk gehiago sufritzea nahi al duzue? Bidezkoa al

da hori? Zergatik?

Londresen (aurrez Madrilen ere bai), kontinente guztietako ehundaka lagunena taupada, *bizia*, sentitu dut: kultura eta sinesmen ezberdinetako jendea, eta oso bide ezberdinetatik kutsatua gertatu dena. Denok genuen zerbait

amankomunean: GIB (Giza Inmunoeskasiaren Birusa) eta itxaropen berbera: *borroka egin* eta *bizitzea*. Asko eskatzea ote?

Mesedez, ez iezaguzue bizkar eman.


Neure ahotsa entzun erazi nahi nuke —beldur naiz alferrik izango ote den— Afrikarekin solidaritatea eskatzeko eta, oro har, Hirugarren Munduarekin eta Lehen Munduko «marginatuekin» (presoak, etab.), egoera etsigarria bizi bait dute, isilpeko *genozidiotzat* kalifikatzen auzartuko nintzatekeena. Gure artean ere dena ez da saldu nahi diguten kontsumo eta erosotasuneko paradisa.

Oroi gaitezen geure artean ez daudenekin... eta *animo* oraindik jarraitzen dugunoi!

(*) *HIESaren aurkako hiritarren batzordekoa.*

**AUTO
ESKOLA** **ARRASATE**
7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 89 89



Herriko umeek makina bat jolas egiteko aukera izango dute

Usteak uste

Joan den astean zehar, asko idatzi zen azken Udal-Plenoari buruz. Amaia Antzokiaren berriztapena, PSOEek aurkeztutako bi mozioak etab. herri mailako komunikabi-deetan, nola edo hala, isladatu ziren.

Aspergarri fama hartzeko arriskuaz, orain ere plenoaren inguruko gogoetak. Hori bai, edukia alde batera utzi eta formari begira.

Plenoari arratsaldeko 7etan eman zitzaion hasiera. Bi ordu t'erdia beranduago, oraindik han geunden, kokoteraino gehienok. Denbora horren zatirik handiena, gai-zerrendari buruzko txostenak irakurtzen joan zen. Eta eskerrak eman behar Arrasateko Udaletxe-ko idazkaria, irakurtzeko orduan azkarra denari. Ez dut pentsatu nahi, dinamika horrekin, nolakoak izango liratekeen Udal-Plenoak idazkaria geldo samarra balitz.

Puntu bakoitzari dagokion txostena jende aurrean irakurtzeak, badu zentzurik? Aurrez, zinegotziek ez al dituzte irakurtzen? Baietz uste dut nik. Beraz, ez litzateke normalagoa izango "Zer, hurrengo puntuan badago esatekorik?" edo antzekoren bat galdetzea. Balego, eztabaidatu eta kito; bestela, aurrera. Horrela segituz gero, guztiok aspertzeaz gain, egunen batean, irakurtzearen nekez idazkaria itoko zaigu. Ez du ez honek meritu makala, itzulpenak ere egiten ditu eta.

BEÑARDO KORTABARRIA

Umeak euskaraz jolasean

Guztira 182 umeek parte hartuko dute

AED Elkarteak azkenengo hiru urte hauetan, herriko umeentzat eskolaz kanpoko ekintzak antolatu izan ditu larunbatero. Aurten ere, ihardunaldi horiek antolatu dira eta gainera larunbat honetan emango zaie hasiera. Eskolaz kanpoko ekintzen helburuak talde-harremanak lortzea eta euskal giroan murgiltzea dira. Ekintza ezberdinak daude antolatuta; alde batetik kanpoan egingo dituzten ekintzak eta bestetik barruan egingo dituztenak. Ekintza garrantzitsuenen artean asteburuetan mendiko aterpetxeetara egingo diren irteerak, kirol desberdinak, igerilekuan egingo direnak, rokodromoko ariketak, jolasak, hitzaldiak, etab.

Goizetako ekintzetarako 102 umeek eta arratsaldekoarako 80 umeek eman dute izena, guztira 182 umeek. Guzti hauek taldetan banatu dira, goizez 9 talde eta arratsaldez 7. Argi dagoenez,

16 talde arituko dira ekintza hauetan.

Haurrak, Arrasateko ikastetxe guztietako D eta B eredukoak dira: bost talde D eredukoak eta hamaika talde B eredukoak. Aurten, D ereduko hirugarren mailakoak ere hartu dituzte; beraz, hirugarren, laugarren, bostgarren eta seigarren mailako haurrek emango diete hasiera eskolaz kanpoko ekintzei larunbat honetan.

Goizez joango diren umeak hamarretatik ordu batera egongo dira ordu-tegia jarri da eta arratsaldez joango direnak hiruretatik seiretara Aurreko urteetan ume bakoitza bere eskolara joaten zen; aurten, berriz, denak Ferrixalekuan elkartuko dira.

Eskolaz kanpoko ekintza hauetan umeei lagundu eta antolaketa aurrera eramateko hamasei begirale, bi koordinatzaile eta arduradun bat arituko dira lanean.

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2

Erakusketa: Santxo Abarka, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



Ileapaindegi mistoa

Erguin, 15 etxabea.


Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE

Matrikulaketa mailaka

Duela hilabete gutxi gorabehera, orrialde hauetan bertan Arrasateko ikastetxeetako matrikulazioari buruzko datuak agertu ziren. Orduan, Eskolaurrea, OHO eta Maila Ertai-netako ikasleen datuak denak batera ageri ziren. Beharbada, datuak hala emanda, nahasi samarrak izan zitezkeen, beraz argiagoak izan daitezzen hor doazkizue berriz, mailaka.

Koadroari begiratzeko orduan, agian Eskola Politeknikoak ikasle gutxi dituela pentsa dezake norbaitek, baina aipatu behar da Injinerutza ikasten dutenak ez direla ageri.

Ikast.	Eskolau.	OHO	Ertainak
Erguin	70	241	—
Musakola	22	173	—
S. Andres	49	184	—
Merced	95	436	—
S. F. X.	301	819	—
Umezaintza	201	—	—
S. Viator	44	701	515
Institutua	—	—	620
E. P.	—	—	961



Seme-alabak Espainiako gartzeletan sakabanatuta dituzte

Enrike Letona gose-greban

Euskadiko gartzeletara ekartzeko kanpainan

Orain dela hilabete gutxi gorabehera, Estatuko gartzeletan sakabanatuta dauden Euskal preso politikoek gose-greba kanpaina bati ekin zioten.

Presondegiei buruzko legean aipatzen denez, preso bakoitzak zigorra bere herrialdean betetzeko eskubidea du.

Lege hori, ordea, ez da betetzen euskal presoen kasuan, eta orain hilabete martxan jarri zen kanpainaren helburuak, gaur egun jasaten duten egoera ilegalatik protesta egitea eta guztiak hemengo espetxeetan elkartzeko eska-

tzea dira.

Gartzelan dauden Arrasateko hamazazpi preso politikoetatik, dagoeneko lauk burutu dute astebeteko gose-greba. Aste honetan, berriz, Murtziako espetxean dagoen Enrike Letonak ekin dio.

Gauzak ez badira bapatean aldatzen, datorren astean, Herreran dauden Luis Mari Azkargorta eta Jose Ignazio Gaztañagak, Ocañan dagoen Iñaki Iturrik, eta Ciudad Realen dagoen Goio Elkorobarrutiak emango diote hasiera astebeteko gose-grebari.

VE ECUADOR

Kontzezifio, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

ARGI PLASTIC. C. B.
PVC eta aluminiozko
leihogintza

Berria Arrasaten! Diseinu berriak!

Axeri, 3 ARRASATE
Tfnoak: 77 02 40 / 77 11 30

SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

URONDO
elektrizitatea



- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa Etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

ARRASATE
PRESS



77 05 65



Laugarren urtea hegaztiei ongi etorria ematen zaiena

Hegaztiei ongi etorria Arlabanen

Arrasatekoen irteera goizeko 9.30etan Portaloian

Duela lau urtetik hona egin duten moduan, Aretxabaletako Amilotx, Bergarako Mendia Bizirik, Eguzki eta EKI talde ekologistek hegaztiei ongi etorria egingo diete datorren igandean, hilak 27. Urtero bezala, agertzeko gonbidapena luzatu nahi zaie ehizaren aurka dauden guztiei.

Arrasateko kasuan, ekologistek goizeko 9.30etan Portaloian biltzeko asmoa daukate. Hurrengo pausoa, kotxeak hartu eta Gatzagaraino joatea izango da. Kotxeak bertan utzi eta Gatzagatik Arlabanerantz abiatuko dira

ekologistak, ehiztariak hegaztien zain egoten diren inguruetara. Behin iritsi eta gero, ekologistak jai-giroko ekintzaren bat bultzatzekotan dira, esaterako, hamarretakoa egin, globoak askatu eta etxafleruak jaurti. Ekintza horiek burutu ondoren, lasai-lasai herrira bueltatzeko asmoa dago.

Ekintza hau burutu den urteetan ehiztari eta ekologistak aurrez aurre izan diren arren, orain artean ez da aparteko iskanbilarik gertatu. Ea bada aurten ere, denok nahi dugun normaltasunaren barruan igarotzen den eguna!

Liburu-azokaren balantzea

Iazko urteari begirada bat emanez gero, Liburu-azokan ez da, salmenta kopuruari dagokionez, aurrerabiderik somatzen. Iaz 2.500.000 pezetako salmentak egin baziren, aurten 2.750.000koak egin dira, diferentzia gutxi beraz. Liburuei dagokienez, salduenak honako hauek: A) Euskal elaberrietan, Bernardo Atxagaren "Obabakoak" eta J. M. Irigoienen "Babilonia". B) Erdal elaberrietan, Auel-en "Las llanuras del tránsito" eta Frederick Forsyth-en "El manipulador". Gehien saldu diren diskoak, Txomin Artola eta Amaia Zubiriaren azkena, eta Hertzainak eta Negu Gorriak taldeenak izan dira.

Arrasatearrak Atarrabian

80.000 pertsona inguru izan omen ziren joan den igandean Atarrabian burututako Nafarroa Oinez-en. Arrasate Nafarroa aldera joan zirenak zenbat izan ziren jakiterik ez dago, baina adierazgarria izan daiteke Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza hamasei autobus atera zirela esatea. Kotxez joan zirenak gehituz gero... atera kontuak!

Larreako etxebizitzak

Azken Gobernu-Batzordean adierazienez, laster Larreako etxebizitzak lurren salmenta egingo zai izena eman dutenei. Era berean, datorren hilean Yeregi arkitektoak proiektu berria aurkeztu zela ere adierazi zen.



ARRASATEKO UDALA



Arrasateko Udalak **3 Administrari-laguntzaile** eta **2 Udaltzain** kontratatu nahi ditu aldi baterako.

Azterketak urriaren 30ean eta azaroaren 5ean egingo dira, hurrenez hurren.

Hautespen-prozesua arautzen duten oinarriak Udaletxean jaso daitezke.


Arrasaten, 1991ko urriaren 21ean



Dirudenez **Udala plazan** auto batek oporretan petrila jo eta apurtu egin zuen. Toki horretatik jende asko pasatzen da eta gainera izugarritzko trafikoa dabil. Ondorioz ez dago esan beharrik oso gune arrisksua bihurtu dela. Beraz, konpondu behar duenak konpon dezala.



Pasa den astean, V. Mendeurrenaren inguruan **Aste Internazionalista** burutu zen. Aste guztian zehar, Monterronen, Colon Ameriketara heldu aurrekoari eta ondorengoari buruz erakusketa egon zen; igandean kanpoan ipintzea pentsatuta bazuten ere eguraldi txarragatik ez zuten jarri. Honetaz gain, bi hitzaldi egin dira: bat txiletar batek eman zuen eta bestea kolonbiar batek.



Debaldea

Pasa den ostiralean, Arrasateko **Lana Koperatiban** komunikabideoi enpresa erakutsi ziguten. Gaztagintzaren prozesu guztia ikusteko aukera izan genuen eta ondoren gazta ezberdinak dastatzeko ere bai.

◀ **Fausto Barcenilla** eta **Esther Garcia**

irailaren 14ean ezkondu ziren eta Kubara egin zuten ezkon-bidaia. Badirudi ezkondu bezain laster haserrealditxoa izan zutela, baina badakigu gezurretakoa izan zela eta beraz, zorionak!



Foto Imagen Argazkia

ESTETIKA-ZENTRUA
lurrundegia, opariak, jostailuak
Z a r r a o a
Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19

VE ECUADOR
Kontzezifio, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

BIONAS
Zurgin Kanto, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

SAMEGO GARBIKETAK
Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39




Izen PROPIOAK

● **Hilari Mendizabal**, Zubillaga auzoko Garaikua baserrian jaio zen, 1881garreneko urriaren 20an, orain dela 100 urte. Zorionak, bada, pasa den igandean bete zenituen ehun urteengatik, ez ditu edozeinek betetzen eta.

● **Alvaro Esparza**, 38 urtekoa. Arrasateko Udaletxe-ko hirigintza departamentuan lanean ari da, Bergarako Udaletxean Eeko zinegotzia da eta pasa den urriaren 18an Eeko Zuzendaritzak Gipuzkoan eraturako Gestorako partaide izendatu dute.

● **Aitor Vallejo**, 32 urtekoa. Portugaleten jaioa eta gaur egun Gasteizen bizi dena. Soziologi ikasketak eta enpresen gestorako masterra egin zituen. Enpresa ezberdinetan lan egin ondoren, azken urte honetan LKSko Marketing sailleko zuzendari-lanetan aritu da eta orain Diarako zuzendari izendatu dute.




Joan den ostiral arratsaldean Arrasate Pressen **Lore Barrutia**, **Arantzazu Isasmendi**, **Elena Goirizelaia** eta **Rakel Orteaga** izan genituen, Fagor-eko kanpo-komunikazio, barne-komunikazio eta pertsonal saileko arduradunak, hain zuzen ere. Berauen artean, Fagor barnerako *Jakina* orri interesgarria egiten dute eta hobetzeko asmoa dutenez informazio bila etorri ziren.




Diara, Saiolanek bultzatutako enpresa, egoitzaz aldatzen da. Orain arten Eskola Politeknikoan egon dira eta orain Aretxabale-tako industrialdera joango dira. Enpresa hau industri diseinura dedikatzen da. Hona hemen talde berritua. ▶

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea,35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ



ZENBAKI

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA

Tfnoak: 79 88 75
79 75 99



AEDk antolatuta, **sexualitateari buruzko ikastaroa** burutzen ari da emakume-talde bat. Talde hori astero biltzen da, ostegun arratsaldetan, 3retatik 4retara. Amaia Vazquez psikologoak ematen du bukatzeaz dagoen ikastaroa; bakarrik bi saio gelditzen zaizkie.

Jose Luis Aranburuzabalak
Gatzaga inguruan 7,700 kiloko
Poliporo frondoso

perretxiko bat topatu zuen. Jateko ona, Rumba tabernan egon da erakusgai. Perretxikoa aurkitu zuenean ez zuen hartu, ezkutatu baizik; eta lagunei kontatu zienean, zorotzat hartu zuten; baina apostu asko egin eta gordetakoaren bila joan zen.

Orain, apostuak galdu dituztenek, ordain ditzatela. ▶



Epelde



"Urkulu zain dezagun"

kanpainaren barruan, pasa den asteazkenean Aretxabaletako *Amilotx*, Bergarako *Mendia Bizirik*, eta bailarako *EKI* eta *Eguzkko* hogeitabost kide inguru, Lan Kide Aurrezkira igotzeko Lagun-Aro parean dagoen atean kateatu ziren. Ondorioz, auto-karabana luzea sortarazi zuten lanetik ateratzen zirenekin. Ekintza honekin ekologistek, LKA Urkulun eraikitzen ari den etxearen aurkako protesta egin nahi zuten. Han zeudela Ertzantza ere agertu zen, baina alde egin zuen ekologistekin hitz egin ondoren. Protesta-ekintzaren argazkiaren azpian, LKAk Urkulun egin nahi duen etxearen marrazkia ikus daiteke, baserri-itxurakoa, hain zuzen.

Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE



Gauzak argituz doaz

Lehen zigorra ezarri da txapelketan

HIREI

SUKALDE OSOTUAK

Zarugalde, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 02 82 Faxa: 77 09 07



Zaldibarko Futbito-txapelketa

A taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Adobe	3	3	0	0	18	10	6
Fosforos	3	3	0	0	16	6	6
G. P. Noski	3	2	1	0	14	4	5
Los Heredia	3	2	0	1	20	10	4
Kriskibalda	3	2	0	1	15	8	4
Los Manchás	3	2	0	1	17	11	4
Arr. Kristaldegia	3	2	0	1	11	5	3
Zulu's	3	2	0	1	17	12	4
Tronkoteak	3	2	0	1	16	14	4
Uglys	3	2	0	1	10	9	4
Akeitegi Express	3	1	1	1	26	13	3
Jubilatus	3	1	1	1	14	20	3
Koskas	3	0	1	2	11	17	1
Tall. San Josepe	2	0	0	2	7	14	0
Neanderthal's	2	0	0	2	2	10	0
Sum. Ind. Ugarte	3	0	0	3	5	15	0
B. D. L.	3	0	0	3	2	19	0
Expert	3	0	0	3	6	30	0
Total	52	24	4	24	227	227	52

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
La banda	3	3	0	0	14	1	6
Los Motz	2	2	0	0	19	2	4
Danok Lagun	2	2	0	0	14	2	4
Navaros	3	2	0	1	13	5	4
Potroak Lorateg.	2	2	0	0	12	5	4
Gau azkenak	2	2	0	0	11	4	4
Fasprint	2	2	0	0	11	4	4
Totxus	2	1	0	1	7	5	2
Ganbelas	2	1	0	1	5	5	2
Jo ta akabau	2	1	0	1	9	10	2
Sibilus Rover	2	1	0	1	5	8	2
Maria del Monte	3	1	0	2	4	14	2
Inter de alima.	3	1	0	2	5	16	2
Anbotoste K. T.	3	0	1	2	6	16	1
Bukanak	3	0	1	2	7	21	1
M. K. A.	2	0	0	2	3	7	0
Txintxes Osorik	3	0	0	3	4	13	0
Olee!	3	0	0	3	4	15	0
Total	54	21	2	21	153	153	54

C taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Adelaida	3	3	0	0	24	3	6
Gnu Seg. Bilbao	3	2	1	0	9	2	5
New Laso Arregi	3	2	1	0	10	5	5
Diego Antonio	3	2	1	0	13	10	5
Argi ibili Mapfre	3	2	0	1	13	7	4
Taber. Monterrey	3	1	2	0	11	9	4
Txokeros	3	2	0	1	9	7	4
ATB	2	1	1	0	7	5	3
Arrasate Press	3	1	1	1	6	4	3
Shaktale	3	1	1	1	9	13	3
Bar Kajoi	2	1	0	1	11	7	2
Aizpun bila	3	1	0	2	14	16	2
Alaves	3	1	0	2	6	15	2
AEK	2	0	1	1	2	7	1
Bayer de Lenitz	3	0	1	2	5	22	1
Whiskeria Linde	3	0	0	3	9	14	0
Sokoakoak	3	0	0	3	8	14	0
Aurrera bolie!	2	0	0	2	1	7	0
Total	50	20	10	20	167	167	50

D taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Bar Artano	3	3	0	0	14	4	6
Notxingan Flo.	3	2	1	0	10	4	5
V. C. Diagas	3	2	0	1	26	3	4
Pepelus	3	2	0	1	11	6	4
Arrasate Kirol.	2	2	0	0	10	5	4
Artzankos Udal.	2	2	0	0	9	4	4
Bizkorrak	2	2	0	0	6	2	4
Hirei	3	2	0	1	9	7	4
Camerun's Trikiti	2	1	1	0	6	4	3
Resakas	3	1	0	2	9	10	2
Arrasate Comer.	3	1	0	2	3	7	2
Ezkiñako hontz.	3	1	0	2	7	12	2
Sukumurus Anb.	2	0	1	1	2	5	1
Nagisak	3	0	1	2	3	10	1
Kakajauri	2	0	0	2	1	5	0
Ghana	3	0	0	3	5	10	0
Balaike	2	0	0	2	1	17	0
Atxanta ke te...	2	0	0	2	3	20	0
Total	46	21	4	21	135	135	46

JMA WMA



Baloiarri ostikada emateko garaia, muskuluak tentsioan. Une azkar batean tentsio guzti horri askatasuna ematen zaio, baloiaren larruarekin bat egiten duen arte.

EMAITZAK

• = Jokatu gabeak

A taldea

Tronkoteak 6	Jubilatus 8
Los Heredia 7	Koska's 4
GP Noski 4	Espres akaitegia 0
Uglys 4	Expert 2
Nearthental's 1	Kriskibalda 4
Tall. San Josepe 5	Adobe F. C. 7
Zulu's 3	Fosforos 6
Los Manchas 9	B. D. L. 1
Arrasate Kristaldegia 3	Sum. Ind. Ugarte 1

C taldea

Diego Antonio 2	New Laso Arregi 2
Aizpun Bila 7	Sokoakoak 4
Monterrey taberna 7	Whiskeria Linde 5
Shaktale 1	Gnu Seguros Bilbao 6
Arrasate Press 1	ATB 1
Aurrera Bolie! 1	Txokeros 2
Bayer de Lenitz 2	AEK 2
Adelaida 6	Argi billi Mapfre 2
Alaves 4	Bar Kajoi 2

B taldea


Los Motz 8	Anbotoste K. T. 1
Potroak Lorategi 7	Bukanak 3
Danok Lagun 7	Txintxes Osorik 1
Gau Azkenak 7	Maria de Monte 1
La Banda 3	Totxus 0
Inter de Alimañas 3	M. K. A. 2
Navarros 2	Fasprint 3
Oleee! 2	Jo ta akabau 7
Garbelas 2	Sibilus Rover 4

D taldea

Nagixak 1	Artzankos Udalaiz 5
Pepelus 4	Sukumurus Anboto 1
Arrasate Kirolak 6	Arrasate Com. 2
Bizkorak 5	Ghana 2
Balaika 1	V. C. Daglas 12
Atxanta ke te mereces 3	Bar Artano 7
Nobxingan Florest 4	Kakajauri 1
Resakas 6	Hirei 2
Ezkiñako hontzak 2	Camerun's Trikiti 4




Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67



LASO ARREGI
argazkidenda

Alfontso Jakintsua Plaza, 3
ARRASATE
Tfnoa: 79 12 75



ARRASATE
KIROLAK

Astore, Nike, Reebok, Auia, Adidas, Converse, Mito, Ellesse, Boreal, Libero, Quicksilver, Le coq sportif, Millet, Saucony, L. A. Gear, etab.

Kontzeziño kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 12 Faxe: 79 92 42

Trikiti S. L.

• Soinua
• Bideoa
• TB
• Komunikazioa
Otalora, 25 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 20 Faxe: 7713 20



Txutak

Partidu interesgarriak

Hirugarren ihardunaldia burututa dagoeneko, gauzak badoaz poliki-poliki argituz. Zentzu horretan, datorren ihardunaldia oso interesgarria izan daiteke, lehen sailkatuen arteko partiduak jokatu direlako. Horretaz hitz egin aurretik, errepasotxo bat eman behar hirugarren ihardunaldiari. Ihardunaldi horren aipagarrienak, gol kopuruagatik, *Los Manchasek BDLri* sartutako bederatzia, *Los Motzek Anbotosteri* sartutako zortziak, *Gnu Seguros Bilbaok Shaktaleri* sartutako seiak, eta *Video Club Daglasek Balaikeri* sartutako hamabiak lirarteke.

Bestalde, zigor bat dela eta bada zer esanik. AEK taldeak Bayer de

Lenitz taldearekin berdintzea lortu zuen, baina zigortua izan da arbitroarekiko erakutsi zuen jarreragatik. Iaz, antolatzaileen aldetik makina bat kexa entzun ziren, jokalariek arbitroei ez zietelako laguntza handirik ematen eta sarritan gehiegi protestatzen zutelako. Antza denez, aurten ez dute nahi horrelakorik gertatzea eta hasiera hasieratik etorri dira zigorrak. Dударik gabe, gainontzeko parte hartzaileek kontuan izateko gauza.

Esan bezala asteburu honetako partiduak interesgarriak izango dira: A taldean, Adobe eta Los Herediasen artekoa, oraingoz lehena eta laugarrena. B taldean, Los Motz eta Danok Lagunen artekoa, bigarrena eta hirugarrena. C taldean, Adelaida eta New Laso Arregiren artekoa, lehena eta hirugarrena. Azkenik, D taldean, Pepelus eta Bar Artanok jokatu dutena, sailkapenean laugarren eta lehenengoa.

BEÑARDO KORTABARRIA

DATORREN ASTEBURUAN

A taldea

Tronkoteak	G.P. Nosti
Los Heredia	Adobe F. K.
Koskas	Krikibaldia
Jubilatus	Los Manchás
Uglys	Arrasate Kristaldegia
Akategi Express	B. D. L.
Expert	Sum. Ind. Ugate
Neanderthal's	Fosforos
Tall. San Josepe	Zulu's

B taldea

Los Motz	Danok Lagun
Potroak Lorategi	M. K. A
Bukanak	Tobus
Anbotoste K. T.	Oleee!
Gau Azkenak	Ganbelas
Maria del Monte	Jo ta akabau!
Txintxes Osorik	Sibilus Rover
La Banda	Fasprint
Inter de Alimafias	Navarros

C taldea

Diego Antonio	Monterrey taberna
Aizpun Bila	Txokeros
Sokoakoak	ATB
New Laso Arregi	Adelaida
Shaktale	Alaves
Gnu. Seguros Bilbao	Argi Ibilii Mapfre
Whiskeria Linde	Bar Kajoj
Arrasate Press	AEK
Aurrera Bolie!	Bayer de Lenitz


D taldea

Nagixak	Arrasate Kirolak
Pepelus	Bar Artano
Sukumurus Anboto	Video Club Daglas.
Artzankos Udalaiz	Resakas
Bizkorak	Ezkinako hortzak
Ghana	Hirel
Arrasate C omercial	Camerun's Triliti
Balaikae	Kakajauri
Abtanza ke te merecos	Notxingan Florest

EDERRA

TABERNA

Iturriotz, 12 ARRASATE Tfnoa: 79 96 25




EGIDO

Automobilarentzako
ordezko piezak

Lagana Pabilioa, ARRASATE Tfnoa: 79 92 11



B E T I S E G U R U



MIKEL LASA

Aseguru artekaria

Maalako Errabala, 33 etxebehea. ARRASATE
Tfnoak: 79 69 00 / 79 69 43

Jovi

Pintura ekologikoak
Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neu-
rritarako felpudoak. Pertsiana biri-
bilkagarriak. Ehunezko horma-
takoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

Nekane Iglesias, orain dela hogeitabost urte Arrasaten jaio zen. Bertan

UBI arteko ikasketak egin zituen eta ondoren Unibertsitatean Zuzenbidea ikastera joan zen. Gaur egun Donostian Diputazioko aholkulari lanetan dihardu eta Arrasaten PSOEko zinegotzia da.

— Zergatik hasi zinen politikan?

— Oraingo legealdian sartu naiz politikan. Nahi izanez gero beti daude aukerak, baina une batean zerbait egitea pentsatu nuen eta horrela hasi nintzen politikan.

— Politikan inoiz sartu gabe egotetik alkatetzarako aurkeztu zinen. Zergatik?

— Politika beti interesatu zait, baina lanean hasteko adin bat behar da, zeren bizitzan zehar pentsaeraz askotan aldatzen bait da. Gainera, gero denbora behar da horrelako gauzetan sartzeko eta ni hogeitabi urterarte ikasten egon nintzen eta aurren arte ez dut denborarik izan politikan sartzeko.

— Oraindik alkate izatekotan legealdi honetan?


— Hori ezin nik esan; horri EAJk erantzun behar dio.

— Alkate izatera helduko bazina, zer egingo zenuke?

— Gauza bat da egin nahi dena eta beste bat egin daitekeena, aurrekontuak hartu behar dira kontuan eta. Une honetan Diputazioan EAJ eta PSOE daude eta hori guretzat oso onuragarria da. Dena dela, aktibitate guztia enplegu eta gizarte-ongizatera bideratuko nuke; dagoen gizarte-eskaria nolakoa den ikusi eta aurrekontuak kontuan izanda Udal, Diputazio, Eusko Jaurlaritzaren eta Gobernu Zentralaren arteko kola-

Nekane Iglesias

Udal-politikan murgildutako emakumea



borazioa lortuko nuke. Horretaz gain, dauden hirigintza-arazoak konponduko nituzke, baina kirol arlokoak ez, kirolean Arrasatek nahiko azpiegitura ona bait du eta ez nuke gehiago egingo.

— Zer deritzozu pasa den legealdian Udalak egingadakoari?

— Niretzat gestio txarra egin zen eta herriaren benetako beharrak ez ziren bete, baina berriro aipatu behar dut hori diruaren arabera dagoela. Badakit enplegu-sustapenean aukerak galdu zituztela eta kirol-gaiari arreta gehiegi eman ziotela; nire ustez

ez dago horren beharrik.

— Eta gaur egungo Udaletxeko gobernu-antolaketa, zer deritzozu?

— Ordezkatuta egon beharko zuen herriko zati bat baztertu egiten da. PSOEk herrian duen indarrarekin oposizioan egon beharrean parte aktiboa hartu beharko luke, eta ez da HBk ez digulako eskaini, baizik eta koherentzia politikoagatik.

— Zenbat hizkuntza dakizu, gaztelaniaz gain?

— Hitzegin, irakurri eta idazteko gai gaztelania bakarrik, baina irakurri eta idazteko euskara ere bai.

— Beraz, euskara ikasten ibili zara, non?

— Beno ba, eskolatik kanpo AEKn hiru orduko ikastaro intentsibo bat egin nuen, gero hurrengo urtean HABEn eta, karrera bukatu ondoren, bost orduko ikastaro intentsiboa egin nuen.

— Pasa den legealdian, zergatik egin zuen PSOEk euskararen aurkako politika?

— Orain ere mozio bat gertatzen ari gara itzulpen simultaneoari buruz, baina ez da euskararen aurkako politika; gertatzen dena da PSOEko zinegotzietatik nik bakarrik ulertzen eta dakidala zerbait. Batetik, esaten dena ulertu egin behar dugu, gauzak behar diren moduan egiteko; eta beste aldetik, Arrasateko jende askok ez daki euskaraz eta eskubidea du pleno batera joan eta ulertzeko. Gaur egun, diskriminatzeke hasi dira euskara erabiltzen.

— Herri baten nortasuna, zertan oinarritu behar da?

— Jendea eta elkarbizitzako arauak errespetatzean; bertako kulturaren errespetuan, baina beste herrietako kulturarekin batera. Zeren Euskal Herrian beste kultura batzuk ere badaude, eta zerbait amankomuna egin beharko litzateke kultura ezberdinen artean. Kultura ez da zerbait estatikoa, gaur egungo kultura eta orain dela 30 urtekoa ez dira berdinak, komunikabideek eta kanpoetik etorri den jendeak eragin handia izan dutelako.

— Zer deritzozu paktu politikoei?

— Gehiengo absoluturik balego, ez genuke horretara jo beharko, baina partidu politiko gehienak programa antzerakoak dauzkagunez paktuak egin daitezke; programak oso ezberdinak balira ezingo genuke pakturik egin.

— **“Euskaraz ez dakien jendeak pleno batera joan eta ulertzeko eskubidea du”**

Natura bera sendagile denean

Yoga, iridologia, akupuntura, osteopatia, homeopatia, masaia, dijitopuntura eta antzerako izenak geroz eta gehiago entzuten dira. Era berean, dietetika-dendak, naturopaten kontsultak, edota gorputzaren zainketarekin zerikusia duten ikastaroak hedatzen ari dira.

Prebentzio-lana

Sarreran aipatu diren teknikak, kale-mailan sendabide alternatiboak izenpean ezagutzen denaren barruan daude. Gai honi buruz hitz egiten hastekoan, lehen zehaztasuna izenari berari dagokio. Sendabide alternatiboak ote dira?

Gaiaren inguruan mugitzen den jendearen ustez, sendabide alternatiboak baino gehiago, osagarriak lirajteke. "Sendabide alopatikoak eta naturalak -dio Alberto Altubek, sendabelar eta dietetikan espezialistak-lagungarriak dira. Hau da, batzuek besteekin joan behar dute. Hala ere, oso desberdinak dira. Guretzat gaixotasunen zergatiak du garrantzi handiena, sendabide alopatikoarentzat berriz garrantzitsuena agerian dauden gaitzak konpontzea da".

Sendabide naturalentzat garrantzitsuena gaixotasunen zergatiak direnez, ez da

arraroa ahalegin handiena prebentzio-mailan egitea. Jose Luis Armentiarren ustez, Yoga egiten duena berau, "gaitz guztiak desoreka baten ondorioz datoz. Gizakia orekatua bizi denean osasuntsu agertzen da; gorputza, burua eta psikea ondo badauzka, ez da gaixotasunik



Sendabelarretan aukera handia dago, baina erabiltzen jakin behar dira


agertuko. Beraz, zainketa orokorra lortu behar da". Aurrekoaren arabera, argi dago gaur eguneko gizartea aipatzen zen osasun-mota lortzetik urruti dagoela. Alde horretatik, era naturalean bizi nahi dutenentzat ohituren aldaketa ezinbestekoa da. "Fanatikoak izan barik -dio Alberto Altubek-, ohiturak aldatu behar dira. Elikadura orekatua eta ondo jateak garrantzi handia du, baina jateko erak gehiago. Plate-rean dagoena osasun aldetik oso ona izan daiteke, baina alboan bazkaltzen dagoenarekin haserre egonez gero, janari horrek ezin du onik egin. Osasun on hori lortzeko, pentsakera atsegina izateko ahaleginak egin behar dira".

Teknikak lantzen

Helburua, osasuntsu bizitzea izanik eta elikadura egokiaz gain, pentsakera baikorra izateak izugarriko balioa duela esanda, egoera psikiko horiek lortzeko hainbat teknika erabiltzen dira: yoga, masaia, tai-chi, kinesologia, etab.

Aipatutako teknikak lantzeko, Arrasaten aukera zabala dago. Datu zehatzak ematerik ez dago, baina badi-rudi azken urteotan ikastaro eta kontsultategietara joaten den jende-kopurua gehituz doala. Eugenio Ramos eta Jose Luis Abuinek kontsulta bana dute, bata esteopatiari zuzendua gehienbat, eta bestea masaia eta akupunturari zuzendua. Bakoitzak ditu bere istoriak, baina elkarganatzan dituen puntu batzuk badaude, biak ikastaroen bidez ikasi dutela eta pentsakera baikorra lortzeko ahalegin horretan dabilzala. Eugenio Ramosek dioenez, "aldika fun-

tzionatzen duen ogibidea da. Gauza guztietan bezala, urtean zehar batzuetan bestee-tan baino jende gehiago izaten dugu". Zer jende-mota izaten ote duten? Denetarikoa joaten zaiela adierazten zuen Jose Luis Abuinek, "bost urtetik larogei urtera arteko jendea etortzen zait. Arrazoiak desberdinak izaten dira: batzuk kuriositatez etortzen dira, zerbait entzun dutelako; beste batzuk, kontzientzurik daudelako; gutxiengak, prebentzio-gisa, osasunez nola dauden jakiteko; gainontzekoak, berriz, beste inon ez dutelako irtenbiderik aurkitu".



Sendabide naturalak gorputzaren atal desberdinaz baliatzen dira sendaketara begira

Ohizko arazoak

Sendabide naturalen nolabaiteko arrakasta dela

eta, arazo pare bat etorri zaie sendakuntza-teknika horiekin lan egiten dutenei. "Egoera alegalean bizi gara,

ez gaude debekatuta, ezta errekonozituta ere. Sendagile-izendapena onartzen digute, baina ez ofizialtasunez.

Bestalde, sasi-medikuak ere agertu dira, ia ezer ikasi gabeak, antolatutako bidaiekin eta guzti".

Zer ote dira?

- **Yoga:** Ariketa fisikoa, arnasa egokia, erlaxapena, elikadura naturala eta pentsamendu baikorraren bitartez oreka lortzea.
- **Masaia:** Giharren eta barruko energiaren askatasuna bultzatzea eta sendatzea. Motak, ugari baino ugariagoak dira eta ia gainontzeko teknika guztietan erabiltzen dira.
- **Reflexoterapia:** Hankapeko puntu jakinen bitartez, erlaxapena eta sendapena lortzea.
- **Osteopatia:** Eskuen bitartez, artikulazio, biszera eta burezurra mugiaraztea oreka batera iristeko. Batez ere, hezurdurari eragiten dio.
- **Homeopatia:** Gaitza dagoenean, gorputzaren estimulua lortzea.
- **Akupuntura:** Pultsoan, aurpegiko kolorean eta mihian oinarrituz diagnosis egin ondoren, orratzekin puntu jakin batzuetan eragitea.
- **Dijitopuntura:** Puntu jakinen inguruan behatzekin lan egitea.
- **Iridologia:** Begietako irisaren koloreen bitartez, gaixotasunari buruzko diagnosis egitea. Normalean, gero masaia, akupuntura, osteopatia, homeopatia, dijitopuntura edo beste teknika batzuk erabiltzen dira sendaketarako.
- **Kinesologia:** Informazioa lortzeko tresna, jendea nola dagoen ikusteko balio du. Gainontzeko guztiak hemen sar daitezke.

Era berean, kontsumora begiratzen duen gizartean bizi garenez, dietetikaz arduratzen direnei ere iritsi zaie zitalkeria. "Boom-a batzuek negozioa egiteko aprobeixatu nahi izan dute. Ez da kontu berria, gizartearen maila guztietan gertatzen da; batzuek kontzientziatz lan egiten dute eta beste batzuek ez. Dietetikan gauza asko saltzen dira beste batzuen izenean; janari eta edari ligh-en kontua, esaterako. Sendabelarrekin antzerako gauza gertatzen da, neurri handi batean jendeak ez dituelako ezagutzen".

**Plus Ultra
taberna**

Maalako Errabala, 17
ARRASATE Tfnoa: 79 20 57



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

Besaide Elkartekoak Linzara

Besaide Mendizale Elkartek datorren asteburu osorako mendi-irteera antolatuko du, Linzara hain zuzen. Besaidekoek azaroaren lehen irteerako asmoa dute, goizeko 8.30etan Garibaiko geltokitik, eta 3an bueltatzekoa. Egonaldian Besaidekoek Hiru Erregeen Mahaia, Aterito eta beste mendi batzuk igoko dituzte. Besaidek antolatutako bidaia honetara joan nahi duten guztiek urriaren 28, 29 eta 30ean izena emateko aukera izango dute Besaide Elkartean



bertan, arratsaldeko 7etatik 8.30etara bitartean. Bazkideek 3.000 PTA ordaindu beharko dituzte, ez direnek

3.500 eta Gazteak 2.000 PTA. Informazio gehiago nahi duenak ere, bertan eskuratu ahal izango du.



Partidu erabakikorra Centraljetentzat



Larunbatean, SDI Loiola etorriko da Kiroldegira. Bilbokoak, arrasatearren moduan ez dute partidurik galdu. Orain lortutako puntuak kontuan hartzen dira bigarren fasean. Teorian, talde biak bigarren fase horretan izango dira. Beraz, garaipena ezinbestekoa da Arrasatekoentzat.

Hurrengo partidua

Ez zen posible izan. Joan den astean, liderrak bisitatu zuten Atxabalpe, eta Mondrak ezin izan zuten garaipena lortu, ondo merezia izan arren. Tolosarrek ez zuten ezer erakutsi Atxabalpen, defentsa ona besterik ez. Etxekoek joko ona eskaini zuten. Zorte txarrari leporatu behar zaio garaipenik ez eskuratzea.

Ez zen lesionaturik izan partidu horretan, baina Gerardok zuzeneko txartel gorria ikusi zuenez, ondorengo partiduetan ezin izango du jokatu. Arrasatearra, jasotako kolpea bueltatzean, ez zen zuhur aritu. Lesionatuen egoera hobetuz doa: Txosa, Lafuente eta Julian entrenatzen ari dira eta hemendik gutxira berriro futbol-zelaietan izango dira. Urretxuren egoera, gogoratu sudurra apurtu zuela, ez da nahi beste ona kontuan hartuta oraindik arriskutsua izan daitekeela jolasten hastea.

Hurrengo partidua Zalla taldearen aurkakoa da. Gauzak normaltasunez joanez gero, Mondrak erraz irabazi beharko luke. Zalla taldeak hasiera eskasa eman zion aurtengo txapelketari, baina badirudi azkenaldian zerbait hobetu duela bere jokoa. Arrasatearrek larregizko konfidantza alde batera utzi beharko lukete.



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia


- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

ALEX

ZUBIA

Himalayatik bueltan

PODIUMA



Aurtengo udara arte, Alex Zubiak Piriniotako, Alpeetako eta Andeetako mendi batzuk zeuzkan igota. Aurten, ordea, Himalayara joateko gonbidapena iritsi zitzaion eta onartu egin zuen. "Hasieran, azpeitiarrak etorri zitzaizkidanean, erokeria zela pentsatu nuen. Gero, lasaiaigo, zergatik ez? esan nion neure buruari. Azkenean, joatea erabaki nuen". Erabakia hartu zuen une berean, Alex Zubia eta espedizioa osatzen zuten gainontzekoen asmoa Shisha Pamgmaren 8.046 metroak igotzea zen. Asmoa ahalegin bihurtu zen, baina ez lorpen. "Nire ustez ahalegintzeak eta ondo bueltatzeak du garrantzi gehien. Azken uneko erabakia oso zaila izaten da. Zailtasun hori gure kasuan areagotu egin zen, gorantz gindoazela japoniar espedizioarekin bildu eta hildako bi izan zituztela ikusi genuenean Une horretan, moralatasko jaisten da. 7.300 metroan geunden, igotzeko zorian, gailurretik egun batera, baina hori ikusi eta gero, buru eta bihotz gogorra behar dira, azken finean norberaren bizitza jokoan jarzea delako. Gainera, eguraldiak ere ez zigun gehiegi lagundu". Ez dirudi ez, eguraldiak gehiegi lagundu zienik

Alex Zubia eta bere lagunei, elurjau-siak ezezik hotza ere jasan ezina egin zitzairen askotan. "Behin denda barruko tenperatura hartu genuen, zero azpitik zazpi markatzen zuen. Kanpoan normalean zero azpitik hogeita hortik behera".

Baldintza horietan bizitzea zaila izanik, hainbeste denborako elkarbizitza gogorra da. "Gorantz gindoazela dena primeran zihoan. Iritsi, dendan sartu eta denbora gehiena barruan pasatu behar denean edozein gauzagatik moskeatzea erraza da". Esperientzia ona izanda ere, gailurrik ez lortzeaz gain, izan du gauza txarrak ere. "Beno, Shisha Pamgma ez da jende gehiegi ibiltzen den mendia; beraz, nahiko garbi dago, baina gainontzekoak oso zikinak daude: janari-latak, oxigeno-botilak... zaborrak nonnahi. Guk geuk, nahiz eta asto kostatu, zabor guztia jaso genuen, beste espedizio batzuek guztia botatzen zuten".

◆ Emakume futbolariak sendo

Argi dago: aurten Mondra taldeko neskek hasiera indartsua eman diote denboraldiari. Orain artean lau partidu jokatu dituzte eta lauretan garaipena lortu dute. Joan den astean, Deba Garaiko taldeen arteko derbia jokatu zen Aretxabaletan. Etxekoek arrasatearren bisita jaso zuten eta larogeitamar minutu jokatu ondoren Mondra garaile, 0-2ko emaitzaz. Arrasatearren golak, Ana eta Saioak lortu zituzten.

◆ Pilotariak emaitza txarrak

Joan den asteko partiduetan, Gipuzkoako Taldeen arteko Txapelketaren barne, Arrasateko pilotariak ez ziren batere fin ibili, ez helduen mailan ezta gazteenean ere. Nagusietan, Bergararen aurka jokatu zuten. Emaitzak hauek izan ziren: Jubenilak, Bergara 16 - Arrasateko 22. Juniorrak, Bergara 22 - Arrasateko 4. Seniorrak, Bergara 22 - Arrasateko 13. Gazteetan: Infantilak, Soraluze 18 - Arrasateko 16. Kadeteak, Eskoriatza 18 - Arrasateko 7. Asteburu honetan berriro ere Gipuzkoako Taldeen arteko Txapelketako partiduak jokatu dira, nagusiek Iturripen jokatu dute Azpeitiako Ilunpe taldearen aurka; gazteek, berriz, Elgetan Oskarbikoen aurka. Ea oraingoan arrasatearrak hobeto portatzen diren.

◆ Rugbyan galdu

Iazko urtean gertatu zen bezala, aurten ere Rugby taldeak orain arteko partidu guztiak herritik kanpo jokatu ditu. Azkena Plentzian, Kakarraldo taldearen aurka. Argi dago etxetik kanpora jokatzeko ez diola onik egiten Rugby taldeari, 16 eta 0 galdu zuen eta. Iazko denboraldian gauza bera gertatu zitzaion.

ZUBIZARRETA
TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE Tfnoa: 79 15 65



Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

M
ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07

Kontuz kontrako eztarriaz!

Anekdota bat kontatzen ari zirela edota txiste barregarriren batekin edo okela-zati, ogi-papur, gazta-pusketa edo patata-mokauren batek glotisa itxita, zenbait pertsonak min hartu du, inguruan zeudenek gertakizunaren zergatia ez zekitelarik!"

Hau mediku batek idatzi zuen 1854 urtean, eta gaur egun ere gertatzen dira horrelako kasuak; aste honetan bertan jakin dugu 18 urteko neska gazte bat hil dela jaten ari zen bitartean: jakia kontrako eztarrira joan, eta kito, bertan ito!


Ezer egin al daiteke honelako kasuetan? Bai, noski;

eta posible da pertsona salbatzea.

Barruan geratu dena ateratzeko, ez hasi bizkarrean kolpeka edo atzamarrak eztarrira sartzen, horrela barrurago sartu eta arnasbideak guztiz itxita uzteko arriskua bait dago.

Ez itotzeko, arnasbideak berehala ireki beharra dago, lau minutu nahikoa bait dira hiltzeko, lau minutu besterik ez! Beraz, azkar ibili beharra dago, eta arnasbideak irekitzeko modurik egokiena eta bizkorrena, **Hiemlich-en maniobra** egitea da.

Teknika honen bidez, bapateko konpresioa egiten da sabelaldean, diafragmaren



azpian; honela egozpen-indarra sortzen da, biriketarik hasi eta goialdeko aire-bideetaraino heltzen delarik. Lortzen den airearen abiadura gehienetan nahikoa izaten da bidea ixten duen gorputz arrotza kanporatzeko.

Hiemlich-en maniobra

egiteko pertsonak, heldua denean, zutik jarri eta ondorengo pauso hauek eman behar ditu:

1. "Salbatzaileak" beso bat ipiniko du biktimaren gerri inguruan, zilborraren eta esterno-puntaren bitartean ukabila itxita jarritz.

2. Beste besoarekin ere inguratu biktimaren gerria, norberaren ukabil itxiari helduta.

3. Salbatzaileak bultzada gogor eta azkar bat egin behar du bi eskuekin barrurantz eta gorantz. Batzuetan bi bider egin behar izaten da bultzada hau.

Gehienetan arrakasta izaten du maniobra honek.

EUKENI & ARANTXA

HIRU

UTILAJEAK


- **Doitasunezko mekanizazioak, plano eta langileen arabera**
- **Fresatzeko makinak**
- **Zenbakizko kontrola**
- **Mekanizazio-zentruak**
- **Tornuak**
- **Artezko makinak, etab.**

Zaldispe kalea, 10 (95. postakutxa)
ARRASATE Telefaxa: 79 80 97
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61

Goiaín Industrialdea (24. postakutxa)
01170 LEGUTIO Telefaxa: 45 54 74
Tfnoak: (945) 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53

Batuta

Julio Iriondo



Zazpi urte zituenean Elizako koruan hasi zen abesten. Sartzeko proba bat egin zioten eta "Cara al sol" besterik ez zekienez, hori abestu eta proba pasatu zuen. Etxean musikarako beti izan duen girotik datorkio zaleztasuna; gaur egun ere jarraitzen badu, gustatzen zaiolako da; izan ere, bere lana egin ondoren entsaiatu behar izaten du. Bizitzan zehar leku ezberdinetan parte hartu du: Arrasateko koralean, Iruñeako eta Donostiako orfeoietan, "Zigor" operaren estreinaldian eta Sociedad Sinfónica de Bilbao. Orain Iruñeako orfeoiarekin abesten badu ere, noizbehinka Donostiako orfeoitik deitzen diote eta Sociedad Sinfónica de Bilbao-rekin "Medea" operaren estreinaldian parte hartu du. "Operan egiten nuen papera? Nik koruan abesten nuen; bakarrrik abestea ez zait gustatzen, beti gustatu zait montoikoa izatea."

Jakina da opera bat estreinatzeko ordu asko sartu behar direla entsaiatzen. "Azkenengo hamabost egunetan

Arriaga antzokian arratsaldeko zortzietan sartu eta gaueko hamabietan irteten ginen. Egia esan, dedikazio asko behar da, baina gero baditu bere satisfazioak ere, txaloak entzuten dituzunean-edo, adibidez. Egiten diren irteerak garestiak dira, baina orduan duzu aukera abeslari onak ezagutzeko edo kontzertu onak entzuteko; bestela, zeure kontu oso nekeza da."

Hizkuntza ezberdinetako operak edo kantak abestee oso nekeza omen da. "Horixe dela zaila! Onena euskaraz edo gaztelaniaz da, eta frantsesez edo ingelesez badakizu, bale; bestela, nola ahozkatzen den esan behar digute eta horrela, zer esaten dugun jakin gabe kantatzen dugu."

Aurrera begira, ahal duen arte kantatzen jarraituko du. "Gainera 92an Iruñeako orfeoiaren ehungarren urteurrena dela eta leku askotara joan beharko dugu abestera."

"Dedikazio handia behar da, baina gero badu bere satisfazioa"

Txio-txioak

■ Arrasate Musikal eta Gorosarri Altzara

Larunbat honetan, hilak 26, arratsaldeko 8etatik aurrera Arrasate Musikaleko orkestrak eta Eskoriatzako Gorosarri abesbatzak kontzertu bateratua eskainiko dute Altzako San Martzial elizan. Kontzertuari hasiera emateko, Arrasate Musikal-eko orkestrak Brugknerren *Obertura* eta Katchaturianen *Gayane* baleta eskainiko ditu. Gero, Gorosarri eta biek beste lau kanta interpretatuko dituzte: Olaizolaren *Olerkari Zaharra*, Juanito Artzamediren *Udalamendi*, Vivaldiren *Gloria* eta bukatzeko Haendel-en *Aleluya*.

Kontzertu hau Kultur Bideetan kanpainaren barruan kokatu behar da, akordioa bait dago Arrasate Musikal eta Gorosarri abesbatzak elkarrekin kanta dezaten. Larunbateko kontzertuaz gain, Mozarten heriotzaren bigarren mendeurrena dela eta, Arrasate Musikal Mozarten Requiem lana prestatzen ari da. Lan horren aurkezpena seguruen Gasteizeko Manuel Iradier abesbatzarekin batera izango da Gasteizen bertan eta baliteke azaroaren 23an izatea. Gasteizen ezezik, Arrasate Musikalek lan hori herrian bertan ere eskaini nahi du; abenduaren 5ean izango da, Mozart hil zen egun berean.



Berango



Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

Ebaluaketa

Erakaskuntzan betidanik polemiko, la-bankor, heldu-gabe izan eta den gaia dugu hau, ebaluaketarena. Honen inguruan hausnarketa sakona egiteko asmotan etorri zitzaigun, urriak 2 eta 3an, Maite Mauri, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea eta Oinarrizko Diseinu Kurrikularra antolatu duten eta-rikoa.

Abiapuntu gisa egungo ebaluaketa harturik, Erreformak ebaluaketaz ulertzen duena azaldu zigun.

Orain arte, ebaluatzea eta kalifikatzea sinonimo izan dira; hau da, irakaste/ikaste-

prozesuaren bukaeran eta, alde zuzenetik ezarritako minimo batzuen arabera, ikasle bakoitzaren lorpenak nota baten bidez besteekin konparatu izan dira, honela bakoitzari kalifikapen bat ezarritik.

Proposamen berriak, ordea, ebaluaketaren zentzu zabalagoa du. Beraz,

- *Zer da ebaluatzea?* Informazioa jasotzea, diagnostikoa egiteko eta, honen emaitzen arabera, erabaki batzuk hartzeko.

- *Zertarako ebaluatu?* Erabaki horiek, betiere, ikaste/irakaste-prozesua orientatzeko, gidatzeko, laguntzeko. Aurrez jarritako helburu eta xedeak lortu di-

ren edo ez jakiteko.

- *Noiz ebaluatu?* Etengabe eta prozesu osoan zehar.

Beraz, ebaluaketaren sinonimoak *baloratzea*, *orientatzea* izan litezke.

Bestalde, gaur egun, ebaluagai edo ebaluaketaren subjektuak ikasleak ditugu eta hauen ezagupenak soilik. Hezkuntza, ezagupen edo jakintzak transmititzea bakoitzari ez dela pentsatzen dugunontzat, ikaslea ezezik, irakaslea, ikaste/irakaste-prozesua bera, ikastetxea... ere ebaluagai dira. Eta era berean, kontzeptuak ezezik, prozedurak eta jarrerak ere baloratu beharko ditugu, ikasleari heziketa osoa eskaini asmoz. Baina guzti hau,

nola gauzatu praktikan? Hor dago koxka!

Irakasleok prestakuntza-prozesuan buru-belarri murgildurik aurkitzen garen arren eta apostua aldaketaren alde egina dugun arren, zalantza ugari dugu. Batzuk aipatze-kotan:

- Honek suposatzen duen mentalitate-aldaketa eta gizartearen exigentziak, bat al datoz?

- Ditugun haur-kopuruak kontutan harturik, posible al da hezkuntza indibidualizatu? Nola?

- Zer diote gurasoek honi buruz?

S. FRANTZISKO XABIER
IKASTOLAKO IRAKASLE-
TALDE BAT

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Lizargaraten obretan

Denok izango ginen inoiz Besaide Mendizale Elkartek Lizargaraten duen txabolan astebururen bat edo egun batzuk pasatzen eta denok izango ditugu gogoan txabolako literatzarrak eta ondo ixten ez ziren leiho haien astuntasuna edo armairu zaharraren kasta. Dena den, Besaidek txabola berritzeta eta ganora gehiago-ekin jartzea pentsatu du.

Joan zen igandean, bost lagun aritu ziren txabola osteko egurtegia kentzen. Txabola ostea pareta lez utzi beharra zegoen martitzenean igeltseroa lanean has zedin.

Txabola ostean, funda-

mentuzko egurtegi bat egiteko asmoa dago, adreilu eta porlanezkoa, sarrera kanpotik izan barik txabola barrutik izango duena eta egurraz gain argitarako bonbonak eta beste hamaika erraminta gordetzeko balioko duena.

Horretaz gain, teilatuko itoginak konpontzea ere beharrezko ikusten da eta teilatuari ere berritu bat emango zaio.

Txabola barruari dagokionez, leihoak aldatu egingo dira,



Aste honetan hasi dira obrak

orain daudenak herdoiltuta barik ugertuta daudelako eta

dituzten bitarteetatik barruko berotasun guztia joaten delako. Barrutik ere pinturarekin pasada bat egingo zaio; armairu zaharra ere kentzea pentsatu da beste balda handi batzuk jartzeko eta literak orain bezalatsu bi pisukoak izan beharrean, hiru pisukoak erostea da asmoa eta modu horretara gutxiago ipini beharra egongo da. Baina oraindik badago sorpresa bat, normalean txabolatik jaisterakoan ekartzen den ijito usaina areagotzeko, behekosua. Ea bada nola gelditzen den Lizargarateko txoko hura. Dena den, baten batek esatekorik edo aholkurik baleuka, egitea dauka oraintxe eta ez obrak amaitzen direnean.

HANKAMOTZ

Jazten

Dagoeneko
4. alea
kiosko eta
liburudendetan!

4.
alea

• 1991. urtearen amaierako
6 aletarako harpidetza:
1.500 PTA.

• Jasotzeko idatzi 158
postakutxara.
Arrasate 20.500 (Gipuzkoa).

300 PTA



PUBLIKO ORORENTZAT


— TXOTXONGILO eta —
— ITZALen ikuskizuna —

Nessun Dorma

talde kataluñiarrak aurkeztuta:

“Con Quijote
hemos topado”

- Urriaren 27an, igandea
- Arratsaldeko 7etan.
- Amaia antzokian


CON
QUIJOTE
HEMOS
TOPADO



ETXEBIZITZAK

- **Ikasle pisua aurkitu nahi nuke Donostian.** Tfnoa: 79 99 82 (Goizez). Miren.
- **Bi ikasle pisu bila dabilta Donostian.** Dei egin 79 53 82 tfnoa.ra bazkalordu edo afalordueta.
- **Erguinen etxebizitza salgai.** Amueblatua, gas naturala, 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua, bista ederrekoa. Garajea aukeran. Tfnoa: 79 93 42.
- **Etxebizitza alokatuko nuke Aretxabaletan ala Eskoriatzan.** Tfnoa: 79 59 60. Josu.
- **Zarugalde 3an garaje-plaza alokatzen da.** Tfnoa: 79 12 35.
- **Bilbon ikasle-pisua osatu nahi nuke.** Tfnoa: 79 24 51. Nerea.
- **Hiru langile gara Arrasaten alokatzeko pisu baten bila.** Tfnoa: 79 51 49.
- **Bi oheko gela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxebizitza baten bila gabilta Arrasaten.** Dei egin lanordueta 79 02 11 (Alberto) eta 79 36 11 (Izakun) tfno. etara.

LANA

- **Emakumea etxeetan lan egiteko prest.** Tfnoa: 79 84 66.
- **Alemanezko klase partikularrak ematen ditut.** Tfnoa: 79 78 75.
- **Lanak makinaz pasatzen dira.** Tfnoa: 79 78 75.
- **Ingeleseko klase partikularrak ematen dira.** Talde murriztuak. Dei egin arratsalde 77 05 77 tfnora.
- **Emakumea edozein lan egiteko prest:** gaixoak zaindu, garbiketak, umeak zaindu, etxeko lanak egin... Tfnoa: 77 07 12.

- **Emakume euskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 79 91 30.
- **Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke.** Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfnora.
- **Bestaldeko irakasle batek frantseseko klase partikularrak ematen ditu.** Dei egin bazkalordueta 79 20 24 tfno.ra.
- **OHoko klase partikularrak emateko prest.** Tfnoa: 79 19 19.
- **Klase partikularrak ematen dira (fisika, kimika eta matematikak).** Dei egin 77 13 95 tfno.ra.
- **Emakume euskalduna umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Fisikako partikularrak behar dira BT12. kurtsoa.** Tfnoa: 79 37 60.
- **Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 39 49. Iratxe Gonzalez.
- **Injinerutzako ikasle batek klase partikularrak emango lituzke (BUP, COU).** Dei egin 88 28 63 Tfno.ra. Aitor.
- **Ingeleseko klase partikularrak emateko irakasle behar da.** Tfnoa: 77 12 41 Agurtzane.
- **Etxeko lanak egiteko eta umea zaintzeko prest dagoen emakumea behar da.** Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera 79 71 86 tfno.ra. Marisol.

SALEROSKETAK

- **Ordenadore pertsonala salgai.** Eredua: Amstrad CPC 6128 diskete unitatekoa (Basic-endako berezia). Oparia: telebista bihurtzailearekin, jokuak eta bihurtzailera elkartutako iratzargailua. Dei egi 79 13 77 tfnora.
- **Kanpineko hozkailu berria salgai.** Dei egin 9etatik aurrera 79 90 55 tfno.ra.
- **Itzul eta Sor saileko liburuak salgai.** Merke eta berriak. 9-13 urte bitarteko haurrentzat. Tfnoa: 79 80 91. Ander.

- **Cibro-Kamin berogailua egoera oso onean salgai.** Tfnoa: 79 56 46.
- **Charli Mousser hamabi puntatako granpoliak,** Serval lo-zakua eta espelaz (boj) egindako nafar dultzaina salgai. Tfnoa: 77 09 72
- **Oso egoera onean dagoen eta egurrez nahiz ikatzez dabilen berogailua salgai.** Tfnoa: 79 45 80
- **Olivetti Linea 98 idazteko makina salgai.** Tfnoa: 79 11 49. 9etatik aurrera. Miren.

DENETARIK

- **Egunero Bilbora (Leloara) joateko kotxea behar dut, gastuak erdibana.** Dei egin gaueko 11etatik aurrera 79 66 99 tfno.ra.
- **Maritxu Kajoi gauean Gestoraren tabernan lanean nengoela txaketa beltz bat (forro gabekoa) galdu nuen.** Zuk hartu bazenuen, dei egin mesedez 77 09 49 tfno.ra.
- **Asko malte dudan pultsera bat galdu zitzaidan Maritxu gauean Kajoi eta Ederra tabernaren artean.** Zilarrezkoa, handi samarra eta niretzat oso inportantea da. Mesedez, aurkitu baduzu dei egin 79 25 69 tfno.ra. Ines.
- **Abuztuaren 2an spaniel-breton arrazako txakurra desagertu zen.** Izena Mendi (txuria eta marroia da). Zerbait badakizu dei egin 79 24 66 tfno.ra.
- **Egunero eguerdiko 2etarako Elbarren egon behar dut.** Norbait eramateko prest badago dei egin dezala 79 22 63 tfno.ra (gaueko 9.30etatik aurrera).
- **Bilbora (Leloara) arratsalde 7 bazoaz,** dei egin 79 22 63 tfno.ra gaueko 9.30etatik aurrera.
- **Zorionak Karmentxu eta Federi.** Orain arte zeri itxaroten? Ordua zen! Euskaltegiokak.



**ARRASATEN
HILDAKOAK**

Jose Oar Azkarate,
urriaren 19an. 72 urte.

Maria Emilia Berezibar Ormazabal,
urriaren 20an. 82 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Pilar Ansoategi

Gorabehera liburudendakoa



- **Euskal literatura ala atzerrikoa?** Bietatik irakurtzen dut. Euskal literatura gehiago kostatzen zait, baina euskaraz irakurtzea beharrezkoa dela uste dut.
- **Egunkaria ala liburua?** Biak irakurtzen ditut, baina desberdinak dira guztiz. Egunerorako egunkaria, lasai egoteko liburua.
- **Eguberria ala Urteberria?** Urteberria.
- **Plumaz ala boligrafoz?** Boligrafoz.
- **Kalkulagailuz ala buruz?** Kalkulagailuz. Matematiketan ez nintzen txarra, baina kalkulagailua erosoagoa da.
- **Argazkiak koloretan ala zuri-beltzean?** Koloretan.
- **Eskutitza ala konferentzia telefonikoa?** Idaztea gustatzen zait. Dena den, konferentzia telefonikoa nahiago dut.
- **Goizetan aurpegia garbitzeko ur beroa ala hotza?** Hotza.
- **Bertsolariak ala trikitilariak?** Biak gustatzen zaizkit, eta bertsolariak gehien.
- **San Juanak ala Santamasak?** Beno, Santamasak.
- **Bainurako jantzia, osokoa ala bikinia?** Bikinia, noski.
- **Itzi Perurena ala Kaxiano?** Zaila da, baina Kaxiano.
- **Hil eta gero, lurperatu ala erre?** Erre, dudarik ez, ez dago bueltarik.
- **Zintzilik eramateko lauburua ala gurutzea?** Ezer ez.
- **Letrak ala zenbakiak?** Letrak.
- **Mozart ala Beethoven?** Mozart.
- **Bidaiatzeko autobusa ala trena?** Trena.
- **Axterix ala Obelix?** Osagarriak dira, inoiz ez dut pentsatu bata bestea gabe.
- **Kolonia ala perfumea?** Kolonia, perfumea askotan kargantea da.
- **Pintxo beroak ala hotzak?** Gosea izanda, bietatik.
- **Arrasate ala Mondragoe?** Arrasate.

Bertsotan

Elurra

1
Zurituta zegoen
Udalaitz gailurra
urrian geradela
dirudi gezurra
gazteen poztasuna
zaharren beldurra
nahiz ta danok ez maite
heldu da elurra.

2
Neguari berriro
heldu zaio txanda
sorpresaz hartu gaitu
egia esanda
elurra tontorrera
iritxi da jada
herrira heldu aurrez
atera bufanda.

ARANTZAZU FERNANDEZ DE ARROIABE



Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua, Arrasate



Santiago eguna, 1945garren urtekoa: Dagoneko Mondrako jokalariek amaituta zeukaten futbol denboraldia.

Urtero bezala, jokalaria eta zuzendariak elkarrekin joan ziren eguna pasatzera, urte hartan Landa alderantz. Beste urte batzuetan Urbian eta Legution ere izan ziren.

Goizean goiz elkartu eta Ramon

Aranbarriren kamioian sartuta Dorletarantz abiatu ziren futbolari, pilotari, zuzendari eta zaleturen batzuk. Dorletan, On Jose Maria Arizmendiarrietak emandako meza entzuteko aukera izan zuten. On Jose Maria, "Juventud Deportiva de Mondragón" zelakoaren zuzendari espiritualak izateaz gain, taldearen direktiboa ere bazen.

Meza entzun eta gero, berriro kamioira igo eta Landaraino joan ziren futbolariak. Garai hartan, Landan merenderoa zegoen eta gainera igandero erromeria. Kirola-

riek merenderoan bertan bazkaldu zuten eta normala denez, arratsaldeko erromerian ere hartu zuten parte.

Argazkia ez da oso ona, beraz zail egiten da agertzen diren guztiak zeintzuk diren jakitea. **Lucio Markaide soinu-jolea, On Jose Maria Arizmendiarría, Muxibar, "Patri", Lucio Berezibar, Felix Ugalde soinu-jolea, Castor Uribe, Gregorio Bolinaga, Jabier Aranzabal, Mikel Alberdi, Benjamin Pereira, Ramon Aranbarri, Imanol Areizaga "Txanboli", Pako Aspiazua eta Joxe Errasti** besteak beste han zeuden.

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 TARRASATE fnoa: 79 14 99

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua

Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96

Telefax: 793412



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Lan-arloan hoberako izango den aldaketaren bat suerta liteke. Aldaketa arlo guztietan eman liteke, bai osasunean baita maitasunean ere. Zorte ona izango duzu oro har. Bizipoza.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Salmentarako une aproposa izango da datorrena, horretan ari bazara. Bestelako gaietan ere, intuizio-faltarik ez duzu izango eta tratante ona izango zara. Aterako duzu, bai, etekinik.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Maitasuna eta lana izango dira protagonista aste honetan. Proiektu interesgarriak dituzu eta jende asko inguratuko zaizu lagundu nahian. Zure hitzak ez ditzala haizeak eraman.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Benetan maiteminduta zaudela sentituko duzu eta inoiz ahaztu ezineko momentuak biziko. Lanerako daukazu gaitasuna adierazteko momentu onak izango dituzu. Buruargi egongo zara.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Zure bizimoduaren aldaketaren bat emango da. Burura datozkizunak bete itzazu, txorakeriak ote diren pentsatu barik. Hartutako erabakiak zure onerako izango dira. Animo.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


Zure finantzek kili-kolo darraite. Halere, zu zeuk zeure kasa orekatu ahal izango dituzu, inorengana jo barik. Aukerarik izanez gero aurrerabidea eskainiko lizukeen zozertan hasi.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Eraginkor egongo zara. Amaitu gabe zenituenak amaitu eta proiektu berriak aurreikusteko egun aproposak dituzu datozenak. Lagun eta familia arteko harremana primerakoa izango da.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Lehen alde batera lagatako eginbeharretan emango dituzu egunak. Ezer berririk hasteko astirik ez duzula pentsatuko duzu. Ez etsi, izango duzu aukerarik benetan gustoko duzuna egiteko.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Arduratuta zabilta lanean eta bikote-harremanekin. Baliteke zure nahiak egoki ez adieraztea eta ondorioz hainbeste arduratzen zaituzten arazoak sortzea. Esazu zure egia argi



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Gehiegi arduratuko zara lanarekin, harira etorriko ez den zeezer erakutsi asmoz edo. Gau bat baino gehiago emango duzu esna. Ez gara lanerako bizi, Cancer, bizi izateko baino ez dugu lan egiten.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra


Energiaz gainezka egongo zara. Aurrean jarriko zaizkizun traba guztiak gaindituko dituzu eta jende asko inguratuko zaizu lagundu nahian. Zure hitzak ez ditzala haizeak eraman.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra


eta garbi.
Gustoko duzun saltsan bizi izan zara azkenaldi honetan eta berdin jarraituko duzu. Atsegin egiten zaizu lana, baita bertako jendea ere. Maitasunean ere armonian biziko zara.



MIKEL ELORZA ETXEBARRIA

ASEGURU-ARTEKARIA

Zarugalde, 44 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 13 09



Telebegi

Joan den asteen Andonik hemen bertan idazten zuen ATBren emisioei buruzko kezka, zer emititu, zer ez eta nor erabakiko duen hain zuzen. Esku artean daukagun arazoan artean ez da makalena, beste batzuei lehentasuna ematen ari bagara ere.

Nire partetik "Rambo bai ala ez ATBn?" galderarentzat ez daukat oraindik erantzun borobilik. Garbi dago arrakasta behar dugula, eta bide horretatik eskrupulu asko atzean utzi beharko ditugua. Pentsatu nahi dut, hala ere, arrakastarako bidea ez dela bakarra eta lineala, herri-telebista batek badauzkala errekurso propioak herritarren arreta lortzeko,itsu-itsuan besteak doazen bidetik joan gabe.

Azken finean, ATBk herri-telebista komertziala nahi luke izan, baina ez telebista kutrea.

Zirkuluaren kuadratura izan daiteke definizio hau, badakit, baina Arrasate leku aproposa izan da aurkikuntza orijinaletako eta oraingoan ere izango delakoan nago.

MIKEL IRIZAR

Albistegiak egunero

8, 8.30 eta 9etan

E, zu, oraindik ez dakizu? ATBn hilabete daramagu egunero emititzen.

Etapa berri honetan albistegiak ditugu geure programazioaren zutabe nagusi. 8, 8.30 eta 9etan duzue ikusgai *Berriak* saioa, hiru aldiz errepikatuta, norberak komeni zaion ordua aukera dezan.

Ez ahaztu. Herrian gertatutako berri freskoak jaso nahi badituzue, etorri egunero ATBra!

◆ Banaketa-prozesua bukatuta dago EEren barruan. Hilabete garratzak izan dira eta badakit zaila izango dela gertatutakoak ahaztea. Arrasaten, gainera, afiliatu gehienak Añamendikoekin identifikatzen dira. Baina ni pertsona baikorra naiz, eta zera esan nahi diet, ateak zabalik daudela lanean jarraitu nahi dutenentzat"

(Albaro Esparzak, EEko Gipuzkoako Gestorakoak, *Berriak* saioan)

Telebelarri

Programazioa

27

IGANDEA

9.30etan, *Mondragol*. Zalla-Mondra partiduaren ordu erdiko laburpena.

28

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albiste-emanaldia.
9.15etan, *Mondra Sport*. Arrasateko kirol-mundua-
ren errepasua.

29

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Egunean zehar jasotako berriak.
9.15. *Erreportaiak*. Aste honetan, AEDk larunbatean haur-
rentzako martxan jarriko dituen asteburu-
etako ekin-tzak, eta igandean Aretxabaletan antolatuko den Haur Dantzarien egunari buruzko erreportaiak izango ditugu ikusgai.

30

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albistegia.
9.15. *Musikala*. RIP eta Herriotza taldeek larunbatean Arrasateko Gaztetxean emango duten jaialdia.

31

OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Albistegia.

1

OSTIRALA

Ez dago emisiorik.

CALIBRA

by Opel



BENETAKO INGENIERIA ALEMANA

Zaldi hegalarien muturra, argi elipsoidal iraultzaileak eta spoiler integratuak. 150 zaldi arteko potentzia duten motorrak, katalitzailedunak, 16 balbula, injekzio elektronikoa eta trakzioa aurrekaldean edo lau gurpiletara dutenak. Eta, horretaz gain, honokoak dituen serieko ekipamendua: **ABSa, direkzio**

lagundua, aire egokitua, chech-control-a, irrati-kasette estereoa, lapurreten kontrako alarma, aleaziozko llantak, leihoigotzeko elektrikoak, sarraila zentralizatuak...

Prezioa 2.0.i: 3.057.500 pzta.*
Prezioa 2.0.i 16 B.: 3.627.500 pzta.*

Fabrikanteak aholkatutako prezioa (Penintsula eta Baleareetarako). Garraioa, BEZa eta entregatu aurreko gastuak barne.



Zain gaituzu

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

Esperientziaz onenak

OPEL 
Kontzesionario ofizialak